

## GIZARTE ZIENTZIAK CURRÍCULUMEKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Ea gai den, banaka eta taldean, eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) erabiliz, gizarteari, geografiari edo historiari buruzko testuak bilatu, aukeratu eta antolatzea dakarten lanak eta aurkezpenak egiteko, eta trebezia egiten duen lan, bai bakarka, bai talde baten barruan elkarlanean.
2. Ea arduraz, ahalegina eginez eta irmotasunez ikasten duen eta bere ikaskuntza-prozesuaz hausnartzen duen.
3. Ea giza taldeak askotarikoak direla onartzen eta errespetatzen duen, lankidetzeta eta parte-hartze arduratsua duen, eta elkarrizketetan eta eztabaidetan besteen ideiak eta ekarpenak desberdinak direnean errespetuz eta tolerantziaz onartzen dituen, balio demokratikoak eta guztiok onartutako giza eskubideak oinarri hartuta.
4. Ea gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta modu konstruktiboan parte hartzen duen, eta badakien lankidetzeta eta elkartasuna direla, balio demokratikoak errespetatuz, gatazkarik ez gertatzeko eta gatazkak konpontzeko bidea.
5. Ea sormenez eta ekintzaile-senaz jarduten duen, eta informazioa eta ideiak hobeto baliatzeko eta ondorio berritzaileak aurkezteko erabiltzen dituen.
6. Ea planoak eta mapak egin, interpretatu eta erabiltzen dituen, konbentziozko ikurrak eta eskala grafikoa kontuan izanda.
7. Ea azaltzen duen zer den unibertsoa eta nola sortu zen, non dauden Lurra eta Ilargia eguzki-sisteman, eta haien ezaugarriak, higidura eta ondorioak azaltzen dituen.
8. Ea Lurra irudikatzeko dauden moduak alderatzen, erkatzen, aztertzen eta azaltzen dituen.
9. Ea zuzen deskribatzen dituen planoak eta mapak, eta egoki interpretatzen eta erabiltzen dituen eskalak, konbentziozko ikurrak eta hizkuntza ikonikoa eta sinbolikoa.
10. Ea badakien fenomeno meteorologikoak atmosferan gertatzen direla, eta azaltzen duen zeinen garrantzitsua den hura babestea eta zer ondorio dituen horrela ez egiteak.
11. Ea badakien zer elementu eragiten duten klima, klima eta eguraldia bereizten dituen, eta Euskal Herriko eguraldiaren mapak interpretatzen dituen.
12. Ea badakien zer den litosfera, zenbait harri mota eta haien osaera ezagutzen dituen, eta mineral batzuk eta haien propietateetako batzuk bereizten dituen.
13. Ea badakien zein diren munduko eremu klimatikoak eta Euskal Herriko eta Espainiako klimak, eta haien oinarriko ezaugarri batzuk zein diren esan eta aztertzen dituen.
14. Ea azaltzen duen zer den hidrosfera, ur-masak eta ur-ibilbideak identifikatu eta haien izena badakien, bereizten dituen azaleko urak eta lur azpiko urak, badakien zein diren Euskal Herriko, Espainiako eta Europako arro eta isurialde hidrografikoak, deskribatzen duen uraren zikloa, eta badakien arduraz kontsumitu behar dela.
15. Ea Lurra irudikatzeko dauden moduak alderatzen, erkatzen, aztertzen eta azaltzen dituen, deskribatzen dituen Euskal Herriko eta Espainiako erliebearen ezaugarriak eta sare hidrografikoa, mapa batean edo beste baliabide interaktibo batean kokatu eta adierazten dituen, eta gizakiaren jardura batzuek ingurumenean duten eragina azaltzen duen.
16. Ea adierazten dituen Europako erliebe-unitate nagusiak, Europako klimak eta sare hidrografikoa, eta mapa batean kokatzen dituen.

17. Ea azaltzen duen gizakiak ingurune naturalean duen portaeraren eragina, baliabide naturalak irauteko moduan erabili behar direla adierazten duen, eta gizarteek lurralde-garapen iraunkorra izateko ezinbestekoak diren neurri batzuk proposatu eta haien eragin positiboa azaltzen duen.

18. Ea azaltzen duen zer lurralde-antolamendu duen Espainiako estatuak eta zein diren erakunde politikoak, bereizten dituen udal-administrazioa, probintziakoa eta erkidegokoa, eta zer administrazio-eskumen dituzten ere.

19. Ea badakien zer egitura eta helburu dituen Europar Batasunak, eta azaltzen dituen EBko kide izateak dakartzan abantaila batzuk.

20. Ea badakien zein diren Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriaren ezaugarri nagusiak, zer lotura duten faktore geografiko, sozial, ekonomiko edo kulturelekin, azaltzen duen biztanleriaren bilakaera eta banaketa, eta grafikoki adierazten duen biztanleria-piramideen, barra-grafikoen eta grafiko zirkularren bidez.

21. Ea deskribatzen dituen eta alderatzen dituen Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleriaren ezaugarri nagusiak (biztanleria aktiboa, ez-aktiboa, biztanleria-dentsitatea...).

22. Ea aztertzen duen eta alderatzen duen nola dagoen banatuta sektore ekonomikoetan Euskal Herriko, Espainiako eta Europako biztanleria, eta antzekotasunak eta aldeak azaltzen dituen.

23. Euskal Herriko eta Espainiako migrazio-mugimenduak azaltzen dituen, bai eta zer ondorio dituzten.

24. Ea azaltzen dituen lehengaien eta produktu landuen arteko aldeak, eta zer jarduera egiten diren haiek lortzeko.

25. Ea badakien zer jarduera dagokion sektore ekonomiko bakoitzari, sektoreen ezaugarriak deskribatzen dituen, eta badakien zein diren Euskal Herriko, Espainiako eta Europako jarduera ekonomiko nagusiak.

26. Ea deskribatzen duen publizitatearen funtzionamendua eta teknikak, eta bereizten duen publizitate hezitzailea eta publizitate kontsumista.

27. Ea jakitun den zer balio duen diruak eta haren erabilerak, badakien arduraz kontsumitu eta aurreztu egin behar dela, eta bereizten dituen nahitaez egin beharreko gastu finkoak eta nahitaezkoak ez direnak edo xahupenezkoak.

28. Ea badakien zer onura dakartzan ekintzaile izateak.

29. Ea azaltzen dituen enpresen funtsezko ezaugarriak, bereizten dituen enpresek izan ditzaketen jarduerak eta antolaketa-moduak, eta enpresa motak bereizten dituen.

30. Ea badakizkien zirkulazio-arauak eta errespetatzen dituen, eta bide-segurtasuna sustatzen duen, alderdi guztietan.

31. Ea azaltzen dituen aldi historiko bakoitzeko ezaugarri nagusiak eta historiaren bidea aldatzea ekarri duten zenbait gertaera, eta iturri historikoak erabiltzen dituen, historia gai duten laburpenak eta txostenak egin, ondorioak atera eta beste lan batzuk egiteko.

32. Ea erabiltzen dituen segida, iraupena eta aldiberekotasuna nozioak, denboran antolatzeko zenbait gertaera historiko eta beste gertaera garrantzitsu batzuk.

33. Ea denboran eta espazioan identifikatzen eta kokatzen dituen Euskal Herriko eta Espainiako historiako prozesu eta gertaera historiko nagusiak, haien bilakaeraren ikuspegi globala izateko.

34. Ea baduen jakin-mina iraganean gizakia nola bizi zen jakiteko, aintzat hartzen duen zein garrantzitsuak diren Euskal Herriko eta Espainiako aztarna arkeologikoak historia ezagutu eta aztertzeko, eta ohartzen den zaindu beharreko eta besteei helarazi beharreko kultura-ondarea direla.

35. Ea badakien zein diren iraganean (Historiaurrean, Erdi Aroan, aurkikuntzen garaian, industria-garapenaren garaian eta XX. mendean) Euskal Herriko eta Espainiako gizarteen bizimoduaren ezaugarri nagusiak, eta gertaera garrantzitsuak denbora-lerroetan kokatzeko gai den.

36. Ea badakien zein garrantzitsuak diren Euskal Herriko eta Espainiako museoak eta leku eta monumentu historikoak, irakasteko eta ikasteko espazioak baitira, eta ea ingurumena eta kultura errespetatzen duen eta kultura-ondarea balioesten duen.

# 1. MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA
<b>LORPEN ADIERAZLEAK</b>
Ea ikastetxean egiten diren jarduerak identifikatzen dituen eta bizikidetzara-arauek errespetatzen dituen.
Ea pertsonen bizitza zein lekutan gertatzen den identifikatzen duen.
Ea adierazpen kulturalak identifikatzen eta balioesten dituen, eta bere inguruko tradizioetan parte hartzen duen.
Ea ikastetxean lan egiten duten pertsonen lanbideak eta zereginak identifikatzen eta deskribatzen dituen.
Ea irudiak interpretatzen dituen, ikasgaiaren inguruko informazioa lortzeko

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA
<b>LORPEN ADIERAZLEAK</b>
Ea pertsonen bizitza zein lekutan gertatzen den identifikatzen duen.
Ea herrien eta hirien ezaugarri nagusiak identifikatzen eta deskribatzen dituen.
Ea naturarekin zerikusia duten lanbideak identifikatzen dituen eta landa ingurunearekin lotzen dituen.
Ea hainbat garraio-bide identifikatzen dituen, eta non ibiltzen diren azaltzen duen.
Ea hainbat komunikabide eta informazio-iturri identifikatzen dituen, bai eta zertarako erabiltzen diren ere.
Ea bide seinaleak identifikatzen eta interpretatzen dituen, eta seinale horiek eta garraio-bideen erabilera-arauekin zerikusia duten seinaleak bereizten dituen.
Ea hainbat lanbide identifikatzen eta deskribatzen dituen.

3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA
<b>LORPEN ADIERAZLEAK</b>
Ea fenomeno atmosferikoak identifikatzen dituen.
Ea hainbat egoeretan dagoen ura identifikatzen duen.
Ea naturan dagoen ura aurkitzen duen.
Ea urtaroak identifikatzen dituen, ordenan jartzen dituen eta bakoitzaren ezaugarriak azaltzen dituen.
Ea eguraldiaren ikurrak erabiltzen dituen.
Ea eguna eta gaua azaltzen dituen, Lurraren errotazioa oinarri hartuta.
Ea denbora neurtzeko unitateak identifikatzen eta erlazionatzen dituen.
Ea paisaietako elementu naturalak eta gizakiek eraikitako elementuak bereizten dituen.

## 2. MAILA

### 1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA

#### LORPEN ADIERAZLEAK

Ea herriak eta hiriak bereizten dituen eta haien ezaugarriak identifikatzen dituen.

Ea udala osatzen duten pertsonak ezagutzen dituen.

Ea ekoizpen sektoreak identifikatzen eta alderatzen dituen, sektore bakoitzaren berezko ezaugarriak deskribatzen dituen ,eta jarduerak dagokien taldearen arabera sailkatzen dituen.

Ea garraiobideak identifikatzen ,deskribatzen eta sailkatzen dituen.

Ea kalean, oinezko gisa zein bidaiari gisa doanean, oinarritzko zer arau bete behar dituen azaltzen duen.

Ea komunikabideak bereizten eta sailkatzen dituen.

### 2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA

#### LORPEN ADIERAZLEAK

Ea uraren masak, egoerak eta aldaketak identifikatzen dituen.

Ea uraren zikloaren faseak ordenan deskribatzen dituen.

Ea jabetu den aireak izaki bizidunentzat duen garrantziaz. Ea hirietako kutsaduraren eragileak eta horri aurre egiteko proposamenak azaltzen dituen.

Ea erliebeko zenbait elementu identifikatzen dituen.

Ea paisaien ezaugarri nagusiak azaltzen dituen, non dauden kontuan hartuta: barnealdean edo kostaldean.

Ea paisaiek (naturalek zein eraikiek) jasan ditzaketen aldaketak deskribatzen dituen.

### 3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA

#### LORPEN ADIERAZLEAK

Ea eguzki-sistema osatzen duten elementuak identifikatzen eta desberdintzen dituen.

Ea Lurraren ezaugarri nagusiak deskribatzen dituen.

Ea Lurra adierazteko moduak ezagutzen dituen: mapak eta lur-globoak.

Ea eguzki-sistemako planetak identifikatzen, izendatzen, deskribatzen eta alderatzen dituen, Eguzkiarekiko gertutasuna kontuan hartuta.

Ea lurraren translazio-mugimendua eta haren iraupena azaltzen dituen, eta mugimendu hori urtaroekin lotzen duen.

Ea azaltzen duen zer harreman duten Lurrak bere ardatzaren inguruan egiten duen biraketak, eta egunak eta gauak.

### 3. MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea gai den testuak, irudiak, argazkiak, grafikoak eta beste irudikatze modu batzuk aztertzeko, teknologia berriak eta beste euskarri batzuk erabiliz, gaiarekin lotutako edukiak zabaltzeko.
Ea unitate bakoitzari dagokion lexikoa zehaztasunez erabiltzen duen, bai ahozko aurkezpenetan, bai idatzizko lanetan.
Ea eguzki-sistema osatzen duten funtsezko elementuak identifikatzen eta deskribatzen dituen.
Ea badakien zein den Eguzkiaren eta planeten arteko distantzia, eta ea azaltzen duen, eta ea Eguzkiarekiko distantzia zein den kontuan hartuta, badakien zer planeta diren.
Ea gai den translazio-higidurak urtarook zergatik sortzen dituen azaltzeko, baita urtaro bakoitzean paisaiak zer-nolako aldaketak izaten dituen zehazteko ere.
Ea adierazten duen zergatik gertatzen diren egunaren eta gauaren segidak.
Ea Lurraren geruzak (hidrosfera, geosfera eta atmosfera) ezagutzen, izendatzen eta deskribatzen dituen, bai eta horien ezaugarri batzuk ere.
Ea ozeanoak eta kontinenteak identifikatzen eta kokatzen dituen.
Ea Lurra irudikatze hainbat modu ezagutzen dituen: lur-globoak, planoak, mapak eta planisferioak.
Ea puntu kardinalak ezagutzen dituen.
Ea lur-globoen eta mapamundien oinarritzko elementuak topatzen, izendatzen eta definitzen dituen.
Ea fenomeno meteorologikorik esanguratsuenak aipatzen dituen eta horien funtsezko ezaugarriak azaltzen dituen.
Ea <i>airea</i> eta <i>atmosfera</i> terminoak ezagutzen eta azaltzen dituen.
Ea atmosferako atalik garrantzitsuenak definitzen eta bereizten dituen.
Ea ingurumena zaintzeko interesa erakusten duen, eta airearen kutsaduraren kausak eta ondorioak deskribatzen dituen, bai eta hori saihesteko aukerak eman ere.
Ea eguraldia eta klima bereizten dituzten ezaugarriak ezagutzen dituen.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea gai den testuak, irudiak, argazkiak, grafikoak eta beste adierazpen-modu batzuk aztertzeko, teknologia berriak eta beste euskarri batzuk erabiliz, gaiarekin lotutako edukiak zabaltzeko.
Ea unitate bakoitzari dagokion lexikoa zehaztasunez erabiltzen duen, bai ahozko aurkezpenetan, bai idatzizko lanetan.

Ea uraren egoerak eta egoera-aldaketak deskribatzen dituen.
Ea mapa eta argazkietan hidrosfera identifikatzen duen, eta Lurreko ur-masaren ezaugarriak azaltzen dituen.
Ea lurpeko urak nola sortzen diren eta horietara nola irits daitekeen azaltzen duen.
Ea uraren zikloaren lau faseak ulertzen eta azaltzen dituen.
Ea ibai bat nolakoa den definitzen eta deskribatzen duen.
Ea harrien eta mineralen arteko aldea ezagutzen duen.
Ea harrien eta mineralen erabilerak ezagutzen dituen.
Ea paisaia bat zer den definitzen duen eta paisaia natural baten eta eraldatutako beste baten elementuak identifikatzen dituen.
Ea ordokiko, mendialdeko eta kostaldeko paisaien funtsezko ezaugarriak azaltzen dituen, eta pertsonen bizimoduan nola eragiten duten zehazten duen.
Ea pertsonen ekintzek naturan duten eragina azaltzen duen, eta ekintza horien ondorioak murrizteko neurri batzuk proposatzen dituen.

### **3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA**

#### **LORPEN-ADIERAZLEAK**

Ea gai den testuak, irudiak, argazkiak, grafikoak eta beste adierazpen-modu batzuk aztertzeko, teknologia berriak eta beste euskarri batzuk erabiliz, gaiarekin lotutako edukiak zabaltzeko.

Ea unitate bakoitzari dagokion lexikoa zehaztasunez erabiltzen duen, bai ahozko aurkezpenetan, bai idatzizko lanetan.

Ea nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin eta arrantzarekin lotutako jarduerak identifikatu eta deskribatzen dituen.

Ea bigarren sektorearekin lotutako jarduerak identifikatzen eta deskribatzen dituen, eta ea industria motak sailkatzen dituen.

Ea hirugarren sektorearekin lotutako jarduerak identifikatzen eta deskribatzen dituen, eta ea garraioaren, merkataritzaren eta turismoaren ezaugarri nagusiak azaltzen dituen.

Ea folklorea, jaiak eta monumentuak ezagutzeko jakin-nahia duen, eta zergatik kontserbatu behar diren azaltzen duen.

## 4. MAILA

### 1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-4. MAILA

#### LORPEN-ADIERAZLEAK

Ea testuak, irudiak, argazkiak, grafikoak eta bestelako irudikapenak aztertzen dituen teknologia berriak eta bestelako baliabideak erabiliz, arloarekin erlazionatutako edukiak areagotzeko.

Ea unitateko hiztegia zehaztasunez erabiltzen duen, ahozko azalpenetan nahiz idatzizko lanetan.

Ea geosfera definitzen duen, eta geosfera osatzen duten geruzak deskribatzen dituen, bai eta nola aldatzen diren ere.

Ea atmosfera identifikatzen duen, eta haren geruzak bereizten dituen.

Ea eguraldia eta klima definitzen dituen, eta bi kontzeptu horiek bereizten dituen.

Ea temperaturak eta prezipitazioak neurtzeko erabiltzen diren aparatuak azaltzen eta definitzen dituen.

Ea klima zer faktoreren menpe dagoen azaltzen duen, eta horiek azaltzen dituen.

Ea planetako zona klimatikoak zerrendatzen eta deskribatzen dituen.

Ea Euskal Herriko klima moten ezaugarri nagusiak identifikatzen eta bereizten dituen.

Ea planetako uraren banaketa eta uraren egoerak azaltzen dituen.

Ea lur azpiko urak nola sortzen eta azaleratzen diren azaltzen duen.

Ea uraren zikloaren faseak deskribatzen eta ezagutzen dituen.

Ea ibai baten arroa eta isurialdea bereizten eta definitzen dituen.

Ea ibai bat nolakoa den definitzen eta deskribatzen duen.

Ea harriak identifikatu eta sailkatzen dituen.

Ea harriak identifikatzen eta sailkatzen dituen, eta harrien eta mineralen arteko erlazioa ezagutzen duen.

Ea Euskal Herriko mapa bat interpretatzen duen, eta erliebe-unitateak aurkitzen dituen.

Ea Euskal Herriko ibaiak ezagutzen eta aurkitzen dituen.

### 2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-4. MAILA

#### LORPEN-ADIERAZLEAK

Ea testuak, irudiak, argazkiak, grafikoak eta bestelako irudikapenak hausnartzen dituen teknologia berriak eta bestelako baliabideak erabiliz, arloarekin erlazionatutako edukiak areagotzeko.

Ea unitateko hiztegia zehaztasunez erabiltzen duen, ahozko azalpenetan nahiz idatzizko lanetan.

Ea paisaia zer den definitzen duen eta paisaien elementuak identifikatzen dituen.

Ea paisaia naturalak eta eraldatuak bereizten dituen.

Ea paisaia hondatzen duten giza ekintzak ezagutzen dituen.

Ea Euskal Herrian aurki daitezkeen paisaia motak identifikatzen dituen .

Ea Euskal Herriko mugak ezagutzen dituen.

Ea Euskal Herriko probintziak eta hiriburuak hautematen eta kokatzen dituen.

Ea kontzeptu demografiko nagusietako batzuk azaltzen dituen.

Ea biztanleria sexuaren, adinaren eta jardueraren arabera nola sailkatzen den zehazten duen.

Ea leku bateko biztanleria zergatik aldatzen den azaltzen duen.

Ea lurralde bateko biztanleria-dentsitatea nola kalkulatu den dakien eta kalkulatu duen.



Ea lehen, bigarren eta hirugarren sektoreak identifikatzen dituen, eta bakoitzari dagozkion jarduerekin lotzen dituen.

### **3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-4. MAILA**

#### **LORPEN-ADIERAZLEAK**

Ea testuak, irudiak, argazkiak, grafikoak eta bestelako irudikapenak hausnartzen dituen teknologia berriak eta bestelako baliabideak erabiliz, arloarekin erlazionatutako edukiak areagotzeko.

Ea unitateko hiztegia zehaztasunez erabiltzen duen, ahozko azalpenetan nahiz idatzizko lanetan.

Ea historiaurrea zer den dakien.

Ea gizakiaren garapenean izugarriko aldaketak ekarri dituzten aurkikuntzen garrantzia balioesten duen.

Ea historiaurrea banatzen den aroen oinarriko ezaugarriak azaltzen dituen.

## 5. MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-5. MAILA
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea Interneten lortutako irudiak, taulak, grafikoak, eskemak, laburpenak, mapak eta informazioa aztertzen eta interpretatzen dituen.
Ea ikasitako gaien inguruko hiztegia zehaztasunez erabiltzen duen eskolako lanak egiteko.
Ea unibertsoa zer den azaltzen duen, eta haren osagaiak zerrendatzen eta ezagutzen dituen: izarrak, konstelazioak, galaxiak, planetak, satelliteak eta kometak.
Ea unibertsoaren osagaien arteko antzekotasunak eta aldeak deskribatzen dituen
Ea eguzki-sistema osatzen duten elementuak deskribatzen eta definitzen dituen.
Ea Lurraren translazio-higidura deskribatzen duen.
Ea Lurraren translazio-higiduraren iraupena adierazten duen, eta horren eta urtaroen arteko lotura azaltzen duen.
Ea Lurraren errotazio-higidura deskribatzen duen.
Ea Lurraren errotazio-higiduraren iraupena adierazten duen, eta horren eta egunen eta gauen segidaren arteko lotura egiten duen.
Ea Lurraren geruzak (atmosfera, hidrosfera, geosfera eta biosfera) eta haien ezaugarri esanguratsuenak ezagutzen eta definitzen dituen.
Ea planetako kontinenteak eta ozeanoak kokatzen dituen.
Ea dakien mapa baten ezaugarri nagusiak zein diren, eta ea legenda ongi interpretatzen duen.
Ea mapan eskala grafikoak eta zenbakizkoak ezagutzen eta bereizten dituen, eta, horietatik abiatuta, mapako bi puntuen arteko distantzia kalkula dezakeen.
Ea paraleloak eta meridioak definitzen dituen, horiek latitudearekin eta longitudearekin lotzen dituen, Lurraren paralelo eta meridiano nagusiak ezagutzen dituen, bai eta Lurra banatzen duten hemisferioak ere.
Ea azaltzen duen koordenatu geografikoak zer diren eta zertarako balio duten, eta mapan lekuak kokatzeko erabiltzen dituen.
Ea eguraldia eta klima definitzen eta bereizten dituen.
Ea klima zer den definitzen duen, eta haren elementuak eta hura zehazten duten faktoreak ongi azaltzen dituen.
Ea klima-zona bakoitzaren ezaugarri nagusiak deskribatzen dituen.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-5. MAILA
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea Interneten lortutako irudiak, taulak, grafikoak, eskemak, laburpenak, mapak eta informazioa aztertzen eta interpretatzen dituen.
Ea ikasitako gaien inguruko hiztegia zehaztasunez erabiltzen duen eskolako lanak egiteko.
Ea paisaia zer den dakien, eta Espainiako eta Europako paisaien nagusien ezaugarriak alderatzen dituen.
Ea paisaia natural eta paisaia eraldatu baten elementuak ezagutzen dituen.
Ea Espainiako erliebe-unitateak kokatzen eta ezagutzen dituen.
Ea mapan Espainiako isurialde hidrografikoak kokatzen eta ezagutzen dituen.

Ea Espainiako Estatuko erakunde nagusiak ezagutzen dituen, bai eta horien funtzioak eta osaera ere.
Ea Espainiako mugak ezagutzen eta kokatzen dituen.
Ea Espainiako lurralde-antolaketa eta antolaketa politikoa ezagutzen dituen (gobernu-organoak, autonomia-erkidegoak eta hiri autonomikoak, probintziak, autonomia estatutuak).
Ea dakien Europar Batasuna zer den, zein diren haren helburuak, konfigurazio-prozesuko gertaera nagusiak, herrialde kideak, eta EBko kide izateko oinarritzko betebeharrak.
Ea Europar Batasuneko erakunde nagusiak eta gobernu-organoak ezagutzen dituen, bai eta haren funtzioak eta osaerak ere, eta Europar Batasuneko sinboloak ezagutzen dituen.
Ea demografiako kontzeptu nagusietako batzuk ongi azaltzen dituen (jaiotza-tasa, heriotza-tasa, biziitxaropena...)
Ea saldo naturala definitzen eta ongi kalkulatu duen.
Ea lerro-, barra- eta sektore-diagramak, eta biztanleriapiramideak aztertuz biztanleriaren datuak interpretatzen dituen.
Ea Espainiako eta Europako biztanleriaren ezaugarri nagusiak deskribatzen dituen.
Ea Espainiako biztanleriaren bilakaera azaltzen duen, hori bizi-itxaropenarekin, jaiotza- eta heriotza-tasarekin eta migrazio-mugimenduekin lotuz.
Ea lurralde bateko biztanleria-dentsitatea definitzen eta kalkulatu duen.
Ea Espainiako biztanleria-dentsitatearen mapa interpretatzen duen.

### 3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-5. MAILA

#### LORPEN-ADIERAZLEAK

Ea Interneten lortutako irudiak, taulak, grafikoak, eskemak, laburpenak, mapak eta informazioa aztertzen eta interpretatzen dituen.
Ea ikasitako gaien inguruko hiztegia zehaztasunez erabiltzen duen eskolako lanak egiteko.
Ea denbora-lerro batean kokatzen eta azaltzen dituen Espainiako Erdi Aroko eta Aro Modernoko gertaera historiko garrantzitsuenetako batzuk.
Ea Erdi Aroko eta Aro Modernoko mapa historikoak ongi interpretatzen dituen.
Ea gai den Al Andalusek eta kristau-erresumen Erdi Aroan zuten gizartea eta ekonomia deskribatzeko eta bereizteko.
Ea Espainiako Erdi Aroko eta Aro Modernoko bizimoduak ongi alderatzen dituen.
Ea Aro Modernoko gizarte-antolakuntza deskribatzen duen.
Ea arte erromanikoaren eta gotikoaren ezaugarriak ezagutzen dituen, eta horiek deskribatzen eta alderatzen dituen
Ea Barrokoaren ezaugarri nagusiak ezagutzen eta deskribatzen dituen, eta artistarik nabarmenenak izendatzeko gai den, Urrezko Mendean arreta berezia jarrita.
Ea dakien Ilustrazioa zer den, eta despotismo ilustratuarekin lotzen duen.
Ea bisigodoen erresumaren jatorria eta bilakaera azaltzen duen, eta haren ezaugarri nagusietako batzuk deskribatzen dituen.
Ea Al Andaluseko bilakaera politikoa azaltzen duen eta penintsulako kristau-erreinuenarekin lotzen duen.
Ea Errekinkista definitzen duen, eta birpopulatuarekin lotzen duen.
Ea Aro Modernoa bereizten duten ezaugarriak zerrendatzen dituen, eta ea dakien Espainiar Inperioan jazotako gertaera nagusiak zein diren, eta horiek dagokien erregealdiarekin lotzen dituen.
Ea dakien Amerikaren aurkikuntzaren kausak eta ondorioak zein diren.
Ea Espainiako historiako natura-, historia-, kultura- eta arteondarearen garrantzia aintzat hartzen duen.
Ea aintzat hartzen duen kultura eta arte espainiarrak zein europarrak eskaintzen diguten informazio historikoa.

## 6. MAILA

<b>1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-6. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
<b>GIZARTERAKO GAITASUNA</b>
Ea gizakiaren garapenean izugarriko aldaketak ekarri dituzten aurkikuntzen garrantzia balioesten duen.
Ea gizataldeen eboluzioan bereizten duen eboluzio kronologikoa eboluzio kulturaletik
Ea historiaurrea banatzen den aroen oinarriko ezaugarriak azaltzen dituen.
Ea Neolitoko eta metal aroko ezaugarriak bereizten ditu: Jarduera ekonomikoan, gizarte antolamenduan, herrixka-herri urbanismoan, hilobiratze erritoak, artea, sinesmenak,
Ea Neolitoaren oinarriko ezaugarriak azaltzen dituen, eta honen ezaugarriak bereizten dituen Mesopotamiako herrietan eta Europatik hedatu ziren kulturetan .
Ea k.a. III mendetik atzera Euskal-Herrian kokatzen ziren gizataldeen ezaugarriak eta eboluzio kulturala azaltzen duen.
Ea herri kolonizatzaileen ezaugarriak azaltzen dituen eta Euskal lurraldeetan izan zuten eragina azaltzen duten: Zeltak, erromatarrak
Ea erromatar herriaren ezaugarriak eta Euskal Herriko hegoaldean zein Iberiar penintsulan izan duen eragina azaltzen dituen.
<b>ARTERAKO GAITASUNA</b>
Ea Historiaurreko natura-, historia-, kultura- eta arte ondarearen garrantzia zein den dakien, eta hori zaintzeaz eta kontserbatzeaz arduratzen den.
<b>IKASTEN IKASTEAK</b>
Ea gaiari buruzko informazio esanguratsua bilatzen eta hautatzen duen lanak osatzeko, irudiak, lanak, grafikoak, eskemak, laburpenak, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.

<b>2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-6. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
<b>GIZARTERAKO GAITASUNA</b>
Zehaztasunez erabiltzen du landutako gaietan eskuratutako hiztegia, ikasgelan lanak egiteko.
Espainiako eta Europako zona klimatiko bakoitza dagokion landarediarekin lotzen du.
Mendi nagusiak, ordokiak, gailur nagusiak eta kostaldeko erliebearen elementu nagusiak izendatzen ditu.
Euskadi, Espainia eta Europako erliebe-unitateak deskribatzen ditu, eta mapa batean kokatzen: mendiak, sakonuneak, goi-ordokia eta uhartediak; kostaldeko erliebearen elementu nagusiak identifikatzen ditu mapan.
Mapa batean kokatzen ditu Euskadiko, Espainiako eta Europako ibai nagusiak
Europako isurialdeen, ibaien eta klimen ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu.
Mapa batean adierazten du Europa zer hemisferiotan dagoen, zer paraleloren eta meridianoren artean dagoen, zer muga dituen eta zer ozeanok eta itsasok bustitzen duten.
<b>MATEMATIKARAKO, ZIENTZIARAKO ETA TEKNOLOGIARAKO GAITASUNA</b>
Klimogramak interpretatzen ditu, eta Europako klima motekin lotuz sailkatzen ditu.
<b>IKASTEN IKASTEIA</b>
Irudiak, taulak, grafikoak, eskemak, laburpenak, mapak eta Internet bidez lortutako informazioa aztertzen eta interpretatzen ditu.

<b>3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-6. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
<b>GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA</b>
Ea zehaztasunez erabiltzen duen landutako gaietan eskuratutako hiztegia, ikasgelan lanak egiteko.
Ea badakien Europako eskualdeak sailkatzen, biztanleriaren banaketa baldintzatzen duten faktoreen eta haren oinarritzko ezaugarrien arabera.
Ea bereizten eta sailkatzen dituen Europako eta Espainiako hainbat jarduera ekonomiko, eta ea horiek dagokien ekonomia sektorearekin lotzen dituen.
Ea badakien publizitatearen funtzioa adibide zehatzetan aztertzen eta publizitate-teknika ohikoenen ezaugarriak azaltzen.
Ea badakien ekintzaile-senaren onurak zein diren enpresa baten sorrerari aplikatuta, hori nola sortu pentsatuz eta proiektua azalduz.
Ea hainbat enpresa mota bereizteko gai den, haien oinarritzko ezaugarriak azaltzeko, eta horiek dagokien ekonomia-sektorearekin lotzeko.
Ea kutsadura saihesteko eta garapen iraunkorra sustatzeko neurriak proposatzen dituen.
<b>MATEMATIKARAKO GAITASUNA</b>
Ea badakien gastu motak zein diren, eta horiek bereizteko gai den, ezinbestekoak eta beharrezko ez direnak bereiziz. Ea gai den aurrekontua beharren arabera egokitze.
Ea kontziente den etorkizuneko gastuetarako aurreztearen beharraz, eta hori aurrekontu pertsonal bat sortuz egiten duen.
<b>IKASTEN IKASTEAK</b>
Ea aztertzen eta interpretatzen dituen irudiak, taulak, grafikoak, eskemak, laburpenak, mapak eta Internetetik lortutako informazioa.